



**Basaburuko Udala**

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2018KO AZAROAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko azaroaren 30ean, arratsaldeko 17:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Bakartxo Ripalda, Aitor Arangoa, M<sup>a</sup> Mar Ansorena eta Xabier Azpiroz.

Bertaratu da baita ere Ascensio Indakoetxea Berueteko kontzejuko alkatea.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.**

Urriko ohiko batzarreko aktaren inguruan alkateak adierazten du elkarte merkantilaren akordioan zuzenketa batzuk egin direla notaritzatik hala eskatuak, akordioak bertan transkribatuz zuzendu ziren akordioen testu osoa. Urriaren 31eko ohiko akta eta azaroaren 21ekoa ezohiko akta aho batez onartu dituzte bildutakoek.

#### **2.- Alkate ebazpenak.**

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2015/86 alkate ebazpena urriaren 31ekoa Jose Urtxipiari zuzendua Berueteko 11 poligonoko 61 lursailean dagoen etxearen teilatua eraberritzeko obra baimena emanaz.

- 2018/87 alkate ebazpena urriaren 31ekoa Teofila Azpirozi zuzendua Berueteko 11 poligonoko 22 lursailean dagoen etxearen teilatu aeta fatxada berritzeko, sarrerako atea aldatzeko eta ur hartuna konpontzeko obra baimena emanaz.

- 2018/88 alkate ebazpena urriaren 31ekoa Berueteko kontzejuari zuzendua Iturgain elkartearen teilatua eta fatxada nagusia eraberritzeko obra baimena emanaz.

- 2018/89 alkate ebazpena urriaren 31ekoa Berueteko kontzejuari zuzendua Berueteko 11 poligonoko 355 lursailean dagoen ermitaren teilatua eraberritzeko obra baimena emanaz.
- 2018/90 alkate ebazpena urriaren 31ekoa Berueteko kontzejuari zuzendua Txoko Txikiko teilatua eraberritzeko obra baimena emanaz.
- 2018/91 alkate ebazpena urriaren 31ekoa Miguel Galarzari zuzendua ez onartuz egindako eskaera Itsasoko 4. Poligonoko 416. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eta fatxadak berritzeko egindako lanetarako zaharberritzerako eta eraikuntzarako dirulaguntza arautzen duen ordenantzaren 3.2 artikularen arabera ez dira dirulaguntzan sartzen " eskatzailearen ohiko bizitzarekin lotuta ez dauden obrak.
- 2018/92 alkate ebazpena Biderka Abokatuak enpresari zuzendua azaroaren 6an,lan aholkularitza lanak egiteko, Biderka Abokatuak enpresak aurkeztutako 3.100 euro BEZ kanpoko aurrekontua ez onartzea.
- 2018/93 alkate ebazpena azaroaren 8koa Ales Martinezi zuzendua baimena emanaz bere semea Aratz Martinez Beaumontek Oihanzabal eskolan batería jotzeko, ostiraletan 16:40etatik 17:40etara.
- 2018/94 alkate ebazpena azaroaren 8koa Izaskun Seminariori zuzendua baimena emanaz Oihanzabal eskolan pianoa jotzeko, asteazkenetan 17:45etatik 18:15etara.
- 2018/95 alkate ebazpena azaroaren 8koa Jose Ignacio Arribasi zuzendua esleituz Beramendin iharduera ekonomikoen gunea sortzeko udal planaren aldaketa idazteko asistentzia kontratua, 12.000 eurotan (BEZ kanpo).
- 2018/96 alkate ebazpena azaroaren 8koa Alianz aseguroak eta Basabila ehiztari elkarteari zuzendua, NA-411 errepidean Orkatz batekin egondako istripu baten ondarezko erantzunkizun espedientea hasteko onartuz.
- 2018/97 alkate ebazpena azaroaren 8koa Allianz aseguruari zuzendua NA-411 errepidean Orkatz batekin egondako istripu baten espedientea Allianz aseguru enpresari helarazteko onartuz.
- 2018/98 alkate ebazpena azaroaren 13koa Berueteko Parrokia eta Administrazioarekiko Auzi Epaitegira zuzendua Berueteko apezetxean egin beharreko obra, EIOZ ordaintzetik salbuetsia dagoela onartuz.
- 2018/99 alkate ebazpena azaroaren 14koa Udaleko 1. Pisuko eta farmaziko etxebizitzaren errentak arautzeko baldintza plegua onartuz.
- 2018/100 alkate ebazpena azaroaren 26koa M<sup>a</sup> Cruz Ayensari zuzendua, esleituz Basaburuko Udaleko lehenengo solairuko 1. pisuaren alokairua, M<sup>a</sup> Cruz Ayensa Azconari.
- 2018/101 alkate ebazpena azaroaren 26koa Patxi Mirandari zuzendua baimena emanaz polikiroldegia erabiltzeko asteazkenetan, 16:00etatik 17:00etara 2018-2019 ikasturterako, haurrekin korrika teknikak eta orientazioa lantzeko saioak egiteko.

- 2018/102 alkate ebazpena azaroaren 14koa Igoako kontzejuari zuzendua onartuz egindako eskaera eta baimendu Gartzarongo Bentan Igoako Ostatuaren 2 kartel jartzea.
- 2018/103 alkate ebazpena azaroaren 29koa Encarnacion Astizi zuzendua baimena emanaz Orokietako 8. Poligonoko 291. Lursailetik 611 m2 bereizteko, oinarrizko lursaila 9.699,47 m2-rekin geldituko delarik.
- 2018/104 alkate ebazpena Ruben Ruizi zuzendua azaroaren 29koa lehen erabilera baimena emanaz, Aizarozko 10 poligonoko 10 lursailean eraikitako etxebizitzarentzat.
- 2018/105 alkate ebazpena azaroaren 15ekoa Irentxu Martinenari zuzendua baimena emanaz polikiroldegia erabiltzeko ostegunetan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara 2018-2019 ikasturterako, patinaje ikastaroa egiteko.

Bildutakoek jakintzat ematen dituzte alkate ebazpenak.

### **3.- Udal planaren berritzea. Lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren onespina.**

Alkateak azaltzen du udal plana berritzeko Lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren behin betiko testua prestatu dela parte hartze prozesuan ateratako ideiekin eta Nafar Gobernuako hainbat departamentuetako txostenak kontutan hartuz. Aipatutako dokumentua aztertuko dute bildutakoek eta abenduko batzarrean onartzeko proposatu da.

### **4.- Apeztegi berrian igogailua jartzeko bideragarritasun planaren aldaketa.**

Alkateak azaltzen du Toki Administrazioiko departamentutik jakinarazi dutela, aurrekoan onartutako bizigarritasun planean kontutan hartzen zela diru laguntzarako proiektua eta obra zuzendaritzaren gastu osoa baina diru laguntzan bakarrik %8ko gastua kontutan hartzen dutenez proiektua eta obra zuzendaritzarekin lotuta, bideragarritasun plana aldatu eta berriro onartzeko eskatu dute.

Proiektu eta obra zuzendaritzaren gastua osotara, BEZ kanpo, 3.388 eurokoa da (2800 euro proiektuarenak eta 588 euro obra zuzendaritzarenak) Toki Administrazioak bakarrik kontutan hartzen ditu osotara 2438, 76 euro BEZ kanpo, diferentzia hortaz udalak hartzen du bere gain.

Alkateak irakurtzen du bideragarritasun plan berria eta bildutakoek aho batez ondoko erabakia hartzen dute:

**-Onartzea Apeztegi berriko eraikinean igogailua jartzeko obraren bideragarritasun plana, gastua osotara 40.274,27 eurokoa izanik BEZ barne eta hortaz dirulaguntza 23.046,30 eurokoa izanen da eta udalak jarri beharreko defizita 17.227,97 eurokoa tesoreria gerakinarekin finantzatuko dena.**

**-Jakinaraztea erabakia hau Toki Administrazioiko Departamentura.**

Gai ordenetik kanpo badago beste gai bat hirigintza batzordean aztertu zena eta batzarreko gai ordenean sartu behar dena, bildutakoek onartzen dute gai ordenean sartzea ondoren zehazten den gaia:

**Udabe Beramendiko kontzejuak sustatzen duen UA1 unitetearen urbanizazio proiektua. Behin betiko onespena**

Alkateak adierazten du gai hau azaroko hirigintza batzordean aztertu zela eta batzarrean onartzeko proposatu. Hasierako urbanizazio proiektuan ez zen kale osoa zolatzen eta ez zituen azpiegituren planuak aurkezten, hau eskatu ondoren sustatzailea den Udabe Beramendiko kontzejuak aurkeztu ditu eta udal arkitektoak baiezko txostena eman dio aurkeztutako dokumentazioari. Hortaz urbanizaziori behin betiko onespena emateko oztopo urbanistiko ez legalik ez dagoenez eta 2002/35 Lurralde Antolamentu Foru Legerearen 134 eta 76. Artikuluaren arabera, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den akordioa hartzen dute:

**- Onartzea behin betikoz Udabe Beramendiko kontzejuak sustatutako urbanizazio proiektua UA1 unitaterako eta 2002/35 Urbanismo eta Lurralde Antolamendu Foru Legerearen 134. eta 76. Artikuluaren arabera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin akordio hau eta Udabe Beramendiko kontzejuari jakinarazi.**

**5.-Mozioak.**

Alkateak adierazten du Nafarroako Jota, ondare materiagabe izendatzeko eskaera aurkeztu dute baina gaztelania hutsean egonik, euskaraz bidaltzeko dokumentazioa eskatuko zaie aztertu ahal izateko.

Bestetik hainbat udaletan, besteak beste Etxauriko udalak, 16-18 urteko gazteen garraioari buruzko proposamena jaso da.

Alkateak horrekin lotuta, ondoren zehazten den testua irakurtzen du.

*“ Azken aldian, landa-eremuetako despopulazioaren aurka aritzeko akordioa gero eta handiagoa da. Fenomeno horrek arrazoi ugari ditu, baina horietako bat da bertako herritarrek oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko duten zailtasuna, eta horrek desabantaila-egoeran jartzen ditu hiri-eremukoaren aurrean.*

*Oraingo honetan, 16 urtetik aurrera ikasten segitzen duten gazteentzako eskola-garraioaren faltari buruz ari gara. Hau da, adin horretako ia biztanle guztiak, batxilergoko, LHko edo beste batzuetako ikasketak egiten ari dira eta.*

*Garraio publikoaren sareak eskariari behar bezala erantzuten ez dionez, gazte horien gurasoek egunero joan eta etorri egin behar dute gure herrietatik ikastetxeetara, aparteko denbora eta dirua xahututa.*

*Horregatik guztiagatik, honako hau ESKATZEN DUGU:*

*Egungo araudia aldatzea, eta, horrela, landa-eremuetatik irakaskuntza-zentroetara eskola-garraioa bermatuko da, gutxienez ikasleek 18 urte bete eta garraioan autonomoak izan daitezkeen arte.*

*Gure nahia da zerbitzua 16 urtetik 18 urtera zabaltzea; eta uste dugu kostua onargarria izan daitekeela, baldin eta landa-despopulazioaren aurkako borrokan hitzetatik ekintzetara benetan pasatu nahi bada”.*

Bildutakoek aho batez onartzen dute.

## **6.- Batzordeen informazioa.**

### **-Kultura Batzordea. Aitor Arangoak ematen du informazioa.**

Igandean, abenduaren 2an, Apeztegi berrian Erramun Martikorenaren kantaldia izanen da arratsaldeko 19:00tan eta ondoren kantu zaharren afaria.

### **-Euskara Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.**

Euskarldiaren ekimenen barruan, abenduaren 3an Vermuskitz berezia egingen da. Bailaran azaroaren 26ko datarekin 132 Aho bizik izena eman zuten eta 50 Belarriprestek.

### **- Gizarte Politika Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Pintxo lehiaketa burutuko da abenduaren 8-9 eta 15-16ko asteburutan, bailarako ostatu guztietan Berueteko ostatuan ezik. Nafarroako produktuekin egindakoak izan beharko dira, garaiko produktuekin, transgenikoak direnak baztertuz. Ekimen hau Osasuna Bultzatzeko programaren barruan antolatzen da.

### **-Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.**

-Batzordean hurrengo urteko plangintzaren prestaketekin ari dira.

-PDR 2019, deialdirako proiektu gehiago aurkeztu dira, dirulaguntzaren aurrekontua 1080.000 euroko ingurukoa da eta aurkeztu diren proiektuen gastua 1.300.000 euro inguru. Osotara 36 proiektu aurkeztu dira 10 produktibo eta 26 ez produktiboak, zonaldetik 11 proiektu aurkeztu dira. Udalak aurkeztu duten proiektuak aurreko deialdiak baino puntu gehiago lortuko lituzke komunikazio plana eta kontzejuekin hitzarmenak aurkezteagatik, osotara 31 puntu jasoko ditu.

-Cederna Garalurrek bileran aurreko batzarrean komentatu bezala beste garapen agente bat kontratatzea erabaki zen jardunaldi erdian, 1. sektorea eta komertzioa zonaldea bultzatzeko, burujabetza eskualde osoara bideratuz. Gainera ere Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle baten laguntzarekin burutuko da programa hau. Kontratazio berri honek ez du suposatuko kuota gehiegi igoko dela.

- Lehen garapen agenteak udalek kontratatzen zituzten zuzenean, Nafar Gobernuako dirulaguntza batzuekin eta udaletan dirulaguntza horren zati batekin poltsa batzuk sortu zituzten. Cedernako langileak izatera pasatu zirenean garapen agente hauek, beste zonaldeetako udaletan sortuak zituzten poltsa hauek Cedernara bideratu zituzten langile hauen aintzinasuna eta abar ordaintzeko.

Lekunberri Leitza, Basaburua, Imotz eta Ultzamako zonaldeko poltsa ez zen Cedernara bideratu garapen agentea Cedernara pasatu zenean, poltsa honetan 43.000 euro inguru zeuden eta zonaldeko ordezkarian ados egonik poltsa hau

Cedernara bideratzea proposatu zen udalak poltsa honi uko eginez, beste zonaldetan egin bezala.

-Azaroaren 23an, Obanosen Ernaizu Kooperatibak sari bat jaso zuen, Agenda 21etik kudeatzen den Jardunbide Egokien Saria. Orain Ernaizuk estatu mailako leihan sartzen da aipatutako Jardunbide Egokien Sarirako.

### **7.- Informazio orokorra.**

Ez dago.

### **8.-Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 18:10 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.